



EVERESTEN OXIGENORIK GABE

Félix Iñurrategi

GORPUTZARI nahikoa oxigeno eman ezinik gelditu eta esertzera noala, metro batzu aurreragoko gainean, Pitxi besoak goraka ikusi dut, eta ez dakit berari entzun diodan edo nire barrunbetan sortu den oiartzuna iritsi zaidan "hau egina zegok" esanez. Momentuko zirrara, gain horretara iristean pattaldu zait, aurrerago beste gaintxo bat ikusi dudanean baina berriz ere besoak gora eta elkarren animoan "horra ere iritsiko gaituk" esan diot neure buruari. Azken txanpan iritsiko ez naizenik ez zait akordatu, baina gorako azken pausoez ilusiotan eman izan didaten animorik ere ez didate piztu. Besarkada neketsuen ondoren, arnasa baretzen saiatu naiz baina Joxerra agurtzeko bi hitz ozen ateratzeko ere ez dut adorerik izan eta nahiago nuke han behean berarekin banengo.



Félix y Alberto Iñurrategi han vivido una de las escasas experiencias sin oxígeno artificial en la ascensión al Everest.

Jose Ramón Zubizarreta, el tercer componente de la expedición



Makalura egindako espedizioaren itzuleran zer pentsatua ugari izan genuen. Pentsatzea legoke tontorra lortu den espedizio batetatik zer egin behar den ikasterik bada-goela, baina kasu hartan egin behar ez dena suertatu zen ikasgai nagusi. Akats askoren faktura garesti pagatzen da ekonomikoki, fisikoki eta bai psikologikoki ere. Himalayan ere horretako mendi bat igotzea ez da mendi aktibitate soila, espedizioa sail ezberdinez osatzen da eta sail bakoitzak egoki neurtua eta aztertua egon behar du. Everesteko espedizioaren oinarria Makalukoaren azterketa eta balorazioa izan ziren, handik atera zelarik helburu berriaren izaera eta forma batetik, eta bestetik "txorradak" bezala ezagutzen dugun detaile multzoa moldatu edo berritu beharra.

Zortzi hilabetetako lana bildu genuen motxila, bidoi eta karpetatara, auskalo zenbat kafe eta eztabaiden beroan mamitua.

Ilusioz eta helburua lortzea benetan zaila zen konbentzimenduak ematen zuen lasaitasunez, igo ginen abioiaren eskaileratan gora. Hiru hilabeteren bueltara arte, azken esku estutuak, besarkadak, muxuak, malkoak, ...

Situatzea ez da aulkian eseri, ingurura begiratu eta hementxe nago esatea. Khumbuko bazter desolatu hura ez zen prezisamente etxeko sukalde, baina ezta Shipton eta konpainiak ikusi zutena ere; bisitari gisa bertan izanak ginen eta hamaika erreferentzia eta komentario genituen jasoak. Hala ere bertan murgildu behar izateak zalantza eta errespetoa inposatzen du. Gora egiterik ez eta ia behartuak, astebete ez polit baina mesedegarria bota genuen sukaldetik denarako luze zabalean; situatzen. Jokalekuan bertan errealtatea aurrez aurre izanik, ilusio baino errealismo gehiagorekin neurtzen dira gauzak eta gure nahia gure izerdiz soilik igotzea bazen ere, ezin uko egin izan genion Ongchu sirdarrak laguntzeko egin zigun proposamenari.

Oxigenorik gabe egiteko helburua, garbi eta tinkoa zen, sherpen laguntzaren inguruan berriz asmo bezala polita bazen ere, lehenengo unetik ikusi genuen zaila izango zela Kanpamendu finkoak hornitzeko lana egin eta tontorrerako saioan kondizio onetan izatea. Eta beharrik halako mutil fina tokatu zitzaigun, Ongchuk lana erretzu bazigun ere bizkarrei astindu ederra eman bait genien.

Aklimatatu, nahiz eta nahi ez egin behar. Irailaren batetik hamazazpita bitartean, 14



Alberto en la foto de abajo y Félix a la derecha, en la Cascada de Hielo.



Fotos: Félix Iñurrategi

lan egun eta 9 gau alturan egin genituen. Presaka ibili gabe baina beti karrion, hamazazpi egunen buruan Lehenengo, Bigarren eta Hirugarren Kanpamenduak prest zeuden. Egun asko ziren goian eta desgastea garrantzitsua izan bazitekeen ere, hilaren hamazazpitik aurrera espektatibaren egotearen abantailarekin jokatu genuen, azken lan egunetik tontorrera saioa egin arte lasai atsedean hartzeko tartea utziz eta aukerarik egokienean sartzeko bidea eginez.

Burutzen ari ginena saio bakarra izango zela behin eta berriz errepikatu genuen azken saioa igotzen, ez zen bigarren bueltarik egongo. Bide luze eta motela ez da gure gustotara egokitzen eta Everesteko bideak moralki asko sufritu arazi zigun. Egunez eguneko etapa kunplitud, Hego Lepoan pala lan gogorraren ondoren, tontorrera atera aurreko ordu aldrebesetan sartu ginen: gogo txarra, goitikoak, sukaldak ez duela surik, egindako ur apurak zipristina han eta parrastada hemen galtzen direla eta sakuari gustoa hartzen hasi orduko altxatu beharra.

Talde polita bildu zen gora igo asmoz, eta aurreko egunean erabaki bezala ordu-bata ingururako (atzerapenak errespetatuta noski), martxan zen gora bidean 28 laguntako tropela.

Ardura morala, emaitzei gehiegi begira egon gabe, lana egoki eginez neurri handi batean kunplituda gelditzen da eta gugan sinistu zutenei poz hura eman nahi izateak, ilusioa unetik únere pizten zigun. Eskakizun konkretuei erantzun beharrak, alturan eta batipat hain momentu erabakiorretan, erre-akzio txarrak sor ditzakeen ustekoa naiz. Lasaitasunak pauso bakoitza errezago ematen laguntzen du eta lasai joanda ere 8.500 metrotatik gora broma gutxiko kontuak dira. Altura horretatik Hego Tontorra harrakada batera ikusi eta bide erdia egin eta gero lehen baino urrutirago ikustera iritsi ginen. Hona iritsi orduko zenbaitek itzultzeko erabakia hartua bazuen ere 8.600 metroak sare estuko galborea suertatu ziren.

Hego Tontorrera 12ak aldera heldu ginen psikologikoki igotzen zatorik gogorrena

pasatu eta gero. Une horretan Pitxi, Patxi eta bi frantses, Hillary eskaloira iristen ari ziren. Arnasa hartu, nafarrekin bi ohu gurutzatu, walkiz Joxerrari bromo polit bat egin eta arazo latz bati irtenbide bila hasi ginen: sokarik ez genuen eta nola segi. Pauso batzu aurrerago, estaka batetik zintzili, 5 m. inguru soka estatika aurkitu genuen eta Hillary-ra iritsi baino lehen 10 m. inguruko zati bat moztu ahal izan genuen. Harri-duraz begiratu genien bi frantsesei buelta eman eta behera bidea hartu zutenean tontorra hain hurbil izanik. Nafarrei izugarri kostatu zitzaien Hillary irekitzea, aldamenetik hasiak ginen beste bide bat saiatzen, baina azkenean ere Pitxi gora atera eta haren pausoak jarraitu genituen.

Hortik tontorrera auspoari gogor eman-dako bidea izan zen Rongbuk glaziarea begiztatu genuen arte eta beherakoan gauak irentsi gintuen eta gauari alferra da hitzik egiterik. ■

FICHA TECNICA

Expedición. EVEREST-92. Cara Sureste. Ruta Normal. Sin oxígeno.

Componentes. JOSE RAMON ZUBIZARRETA, ALBERTO Y FELIX IÑURRATEGI.

25 de setiembre. Cima del Everest. Alberto y Félix Iñurrategi llegan a la cumbre sin haber utilizado oxígeno artificial en la ascensión. Comienzan el descenso con Equillor y Fernández, alcanzando solos las tiendas del Collado Sur al atardecer.

RESUMEN

CON toda sencillez, y la mayor discreción los hermanos Iñurrategi cumplen el sueño que se forjaron el año pasado, en la cumbre del Makalu, al verlo allá enfrente, dominando el mundo. Unas especiales condiciones de capacidad personal y un serio y largo entrenamiento físico y psicológico, les llevan a la cumbre del Everest, respirando a pleno pulmón, tras las huellas de Patxi y Pitxi.